



OSTALARITZAKO BARRETAKO PINTXOAK ESTALTZEKO ESKATU DU DONOSTIAKO UDALAK

Donostiako Udalak, Osasun eta Herri Osasun sailaren bitartez, "Hiriko ostalaritza establezimendu guztiei barra-barra dauden pintxoak estaltzeko eskatzea" adostu du.

Enrique Ramos Osasun Publikoko zinegotziak adierazi duenez, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin adostu dute neurria, gaur egin duten bileran; izan ere, gai hau kezka sortzen air da hainbat sektoretan.

"Prebentzio, osasun publiko eta higiene neurri bat da", nabarmendu du Enrique Ramosek, eta gogorarazi du elikagaiak, dirudienek, ez direla birusaren transmisoreak, badaezpada ere neurri hori hartzen bada ere.

Prensa oharra

Nota de prensa



Zinegotziak adierazi duenez, eskakizun hori "hiriko ostalaritza-establezimenduei egiten zaizkien nahitaezko ikuskapenen protokoloan sartuko da; izan ere, betebeharrak ez betetzea higie- eta osasun-arloko arau-hauste larritzat jotzen dute, eta horrek zehapen ekonomiko bat ekar lezake, baita establezimendua ixtea ere, jokabidea behin eta berriz errepikatzen bada".

Edonola ere, Udalak, logikoa den bezala, zentzuzko epe bat emango die lokalen jabeei, beren barrenak egoerara egokitu ditzaten, beira-arakak, tapak edo araudia betetzen duten bestelako elementuak jarriz.

Neurri hori, printzipioz, egungo osasun alertak irauten duen bitartean mantenduko dute.